

LABORANTZA EKOLOGIKORA HELTZEKO IKUSPEGI OROKORRA

FORMAKUNTZA JARRAIKIA




ESPERIENTZIEN TRUKATZEAN OINARRITUA

Agroekologia hitza sartua da jendeen hiztegian ; oroz gainetik laborantza erakaskuntzako aipamenetan. Halere, hitz horren funtsa eta ingurua zehaztu behar gorrian daude. Ur hornidura, janariak, bioaniztasuna, lurraldeen bizigarritasuna, gizartearen behar orduak hainbertze aipu diren denbora hauetan, formakuntza honek proposatzen du laborantza ekologikora heltzeko ikuspegi orokor bat. Ikuspegi hori egokitua izanen da parte hartzaile bakoitzaren egitasmoari.

Helburu orokorrak

- Agroekologiaren ikuspegi orokorra eta arloaniztasuna (sail soziala, teknikoa, ekonomikoa kulturala...) garatzea.
- Lurralde, laborantza, lantegi, hezkuntza proiektuetan barne sartzea laborantza ekologikoaren izari aniztasuna.

Formakuntza honen berezitasunak



OFIZIO ETA JAKITATE MOTA AINITZEN BIDEZ

NORENTZAT formakuntza hau ?

Herriko Etxe batentzat lanean ari zireak ? Formakuntza, erakaskuntza munduan lanean ari zireak ? Laborari, Laborantza Ganbaretako, garapen elkarreketako, bankoetako langile zireak ? Ofizioz aldatzera joaz ? Agroekologian edo hortara bihurtzeko moduez formatzeko edo zure formakuntza osatzeko xedea zinuak ? **Formakuntza hau zuretzat egina da!**

Formakuntza horren segitzeko lehenetarikoa dira Baxoa+2 urte dituztenak, lanean ari edo ez, ikasketak egiten ari edo ez. Horiek hola, irakaspedi batzordeak ikertuko ditu lanbide esperientzia edo/eta lehenago jarraiki duen formakuntza.

« Agroekologia den egitekoa da,

Huts handia litzateke biharko desafioa arazo tekniko batzuei mugatzea. Egiazko agroekologiak galdatzen du bilatzea elikadura molde iraunkorrak, zeinak lotuak baitira gizarte iraunkorren bilatzeari. Heldu da galdatzea zer gisara aldatzen ari diren gizarteak ».

Matthieu Calame

Comprendre l'agroécologie, Ed Charles Leopold Mayer, 2016

Zoin da formakuntza FUNTSA ?



Ikasi guzien neurtzea formakuntza denboran eta egitasmoa aitzinatuz bezala egiten da.

Zein EGITASMO motarentzat ?

Formakuntzan garrantzizkoa da egitasmoa gauzatzea. Izan daitake nor-berarena edo hautagaia aurkeztu duen egiturarena. Egitasmo gai ainitz badira : eskuartekoen eraketa eta kudeantza iraunkorra, erakaskuntza helburu duten proiektuak, baserrietan jakitate hedatzea... lurralde elikadura proiektuen laguntzea, laborantzan plantatzea, laborantzan laneko moldeen aldatzea...

JOKALEKUAREKIN ETA ARIZALEEKIN HARREMANETAN

NOIZ iraganen da formakuntza ?

Formakuntza 20 jardunalditan zatitua izanen da, 2023ko azaroaren 6tik 2024ko urriaren 30era. Jardunaldiak aste batez edo biez tartekatuak izanen dira. Jardunaldi bakoitzak 3 egun iraunen ditu; 7 oren ikastaro egun bakoitzeko. Ikastarorik ez da izanen agorrian. Formakuntzaren hastapenean emana izanen da behin betiko egutegi zehatza.

NUN iraganen da formakuntza ?

Herriz herri lekuz aldatuko da formakuntza lekua. Talde moduan antolatuak izanen dira lekuz aldatzeak.



Nola egin HAUTAGAI izaiteko ?

Paperak galdatu behar dira helbide elektroniko honen bidez : contact@formation-agroecologie-paysanne.net

Galdera egitean, zehaztu behar dituzue zuen deitura, izena eta telefono zenbakia, lehenik telefonoz mintzatzeko. Formakuntza nola diruztatu ikusiko dugu orduan, zure egoeraren arabera.

Bete ondoan paperak igorri beharko dituzu helbide elektroniko beraren bidez. Formakuntzaren abiatzea, 2024ko irailan izanen da.

HARREMANETAN SARTZEKO

contact@formation-agroecologie-paysanne.net

WEBGUNEAK

<https://formation-agroecologie-paysanne.net>



Biharko Lurraren Elkartea –
CIVAM bio Pays Basque

Euskal Herriko
Laborantza

HFMFN

InterAMAP Pays Basque

Pertsona adituak : Armelle Gomez,
Olivier Clément



Armelle Gomez, Emile Durkheim zentroan soziologiako
ikertzaile elkartua

Olivier Clément ingeniari agronomoa, IPEF, ibilbide
profesionala INRAE-n egina